Getxo

bizi ezazu

**Orri kopurua** / Nº de páginas: 1

**Data** / Fecha: 2019/02/05

# PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

## Bi jolaslekuren berriztatzea, Romon eta Santa Anan

## Renovación de dos zonas de juegos en Romo y Santa Ana

2018ko amaieran Ama Mesedeetako eliz ondoko umeentzako jolaslekua berriztu ondoren, orain beste biren txanda izango da: Romoko Santa Eugenia kalekoari (Alonso eta Urkizu kaleetako kantoien artean dagoena) eta Areetako Gobela, Santa Ana eta Novia Salcedo kaleen artean dagoenari. Bi jolaslekuak berritzeko lanak, 2018ko Partaidetza Bidezko Aurrekontuetan herritarrek egindako eskaeren emaitza dira.

Lanak gaur asteartean hasi dira egiten. Aipatutako aldean jolasteko dauden elementu guztiak kendu eta berriak ipiniko dira eta jolas-eremu osoko zoladura indargetzailea zaharberrituko da. Lanak 32.000€ inguruko zenbatekoan esleitu dira eta 2 edo 3 asteetan amaitzea aurreikusten da, eguraldiak horrela baimentzen badu.

Lehenago aurreratu genuen bezala, lan hauek Areetako hainbat jolasleku berritzeko planaren barruan sartzen dira, beren antzinatasunagatik eta egoeragatik zaharkituta geratu direnez zaharberritzea behar dutelako.

**(*) Argazkiak eskuratzeko: http://www.getxo.eus/prensa.**

Tras la renovación a finales del 2018 de la zona de juegos sita junto a la iglesia de Las Mercedes, les toca el turno ahora a las existentes en la calle Santa Eugenia de Romo (a la altura de Particular Alonso con Urkizu) y entre las calles Gobela, Santa Ana y Novia Salcedo, en Las Arenas, ambas resultado de las peticiones de la ciudadanía en los Presupuestos Participativos de 2018.

Los trabajos, que han comenzado hoy martes, comprenderán la renovación completa de todos los elementos de las citadas zonas de juegos por unos nuevos, adecuando el pavimento amortiguador existente de toda el área. Las obras han sido adjudicadas por un importe que ronda los 32.000€ y está previsto que concluyan en 2 o 3 semanas, si las condiciones meteorológicas lo permiten.

Como ya avanzamos en su día, estas actuaciones se enmarcan en el plan de renovación paulatina de distintas zonas de juego de Las Arenas, que, por su antigüedad y estado, se han quedado obsoletas y requieren de adecuación.

**(*) Para acceder a fotografías: http://www.getxo.eus/prensa.**




Getxo
bizi ezazu

**Pasa-hitza: fotosycortes**

GetxoUdala

**Prentsa Bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti.
Adeitasunez.

**Contraseña: fotosycortes**

GetxoUdala

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis.
Atentamente.

OHARRA: Faxa hartzean arazoren bat eduki baduzue edo goian esandako orriak hartu ez badituzue, deitu mesedez telefono honetara: 94 466.03.20

NOTA: Si han tenido algún problema en la recepción del fax o no han recibido el número indicado de páginas, por favor contacten con el teléfono: 94 466.03.20